2. Excepcionalmente y en las condiciones recogidas en la base 30.6 la empresa beneficiaria podrá solicitar la ampliación del plazo de ejecución y/o justificación del proyecto. La fecha límite para solicitar dicha ampliación será el 1 de septiembre de 2021.

3. En el supuesto de estimarse la procedencia de la misma, se emitirá resolución expresa indicando los nuevos plazos de ejecución y/o justificación. Si no se emitiese resolución expresa, el silencio administrativo tendrá carácter negativo con efecto desestimatorio. La ampliación de los plazos se realizará en los términos establecidos en la base 30.7.

7. oinarria. *Eskabideak aurkezteko epea.*

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 1ean hasiko da, eta 2020ko irailaren 30ko 13:30ean amaituko da.

Base 7. *Plazo de presentación de las solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el 1 de junio de 2020 y finalizará el 30 de septiembre de 2020 a las 13:30 h.

8. oinarria. *Gehienez egin daitezkeen eskabideak.*

1. Erakunde bakoitzak eskabide bat (1) aurkeztu ahal izango du. Beraz, eskabidea izaera orokorreko proiektu bati egokituko zaio.

2. Erakunde batek behar baino eskabide gehiago aurkezten baditu, organo instruktoreak jakinarazi egingo dio eta 10

Base 8. *Máximo de solicitudes.*

1. Cada entidad podrá presentar una (1) única solicitud. La solicitud corresponderá, en consecuencia, a un proyecto de carácter integral.

2. Cuando una entidad presente un número de solicitudes superior al máximo permitido, el órgano instructor lo notificará a la entidad

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

eguneko epea emango dio batzuei uko egiteko, bere nahierara. Erantzunik jasoko ez balitz, erakundeak egindako lehenengo eskabidea hartuko da aintzat; horretarako, txosten zenbakiari begiratuko zaio.

solicitante, concediendo un plazo de 10 días para la renuncia potestativa a algunas de las solicitudes. Si no se recibiere respuesta expresa se tomaría en consideración únicamente la primera solicitud realizada por la entidad para lo que se tendrá en cuenta su número de expediente.

9. oinarria. *Proiektuak ebaluazio baremoak*.

1. Proiektuak ebaluatzeko taula honetan jasotzen diren baremoak aplikatuko dira:

Base 9. *Baremos de evaluación de los proyectos*.

1. La evaluación de los proyectos se realizará aplicando los siguientes baremos:

| Baremoak<br>Baremos | Gehieneko puntuazioa<br>Puntuación máxima |
|---|---|
| 1. Programaren helburuekin bat etortzea<br>Adecuación a los objetivos del Programa | 20 |
| 2. Ekintza planaren kalitatea<br>Calidad del plan de acción | 15 |
| 3. Proiektuaren kalitatea<br>Calidad del proyecto | 30 |
| 4. Lortu nahi diren emaitzak eta eragina<br>Resultados esperados e impacto | 10 |
| 5. Talde sustatzailearen eta kanpoko taldearen egokitasuna<br>Adecuación del equipo promotor y del equipo externo | 10 |
| 6. Proiektua kudeatzeko planifikazioa eta metodologia<br>Planificación y metodología de gestión del proyecto | 10 |
| 7. Enpresek ingurumenarekin, erantzukizun sozialarekin eta berdintasunaren sustapenarekin duten konpromisoa<br>Compromiso de las empresas con el medio ambiente, con la responsabilidad social y con la promoción de la igualdad | 5 |

2. Eskabideei puntuak emango zaizkie adierazitako baremo bakoitzean. Baremo bakoitzean lortu ahal den gehieneko puntuazioa taulan adierazitakoa da.

3. Eskabidea diruz laguntzeko 50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

2. Se otorgarán puntos a las solicitudes en cada uno de los baremos indicados. La puntuación máxima obtenible en cada uno de los baremos es la indicada en la tabla anterior.

3. Sólo se considerará subvencionables aquellas solicitudes que alcancen una puntuación total mínima de 50 puntos.

10. oinarria. *Aurkeztu beharreko agiriak*.

1. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

a) Eskabidea, dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

Base 10. *Documentación a presentar*.

1. Documentación a presentar en el momento de la solicitud:

a) Solicitud acorde con lo que se especifica en este decreto.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

b) Kudeaketa Aurreratuko Kontrasteari buruzko Txostena, Euskalitek egina.

b) Informe de Contraste de Gestión Avanzada elaborado por Euskalit.

c) Enpresak egindako ekintza plana, web orrian eskura daitekeen ereduaren arabera. Plan horretan, Kudeaketa Aurreratuko Kontrasteari buruzko Txostenaren ondorioen ildotik, kudeaketa aurreratuan hobera egiteko aurrez ikusita dituen ekintzak deskribatu behar ditu, orokorrean.

c) Plan de acción elaborado por la empresa, según modelo disponible en la web. En él deberá describir, en su conjunto, las acciones que tiene previsto realizar para avanzar en una gestión avanzada en línea con las conclusiones del Informe de Contraste de Gestión Avanzada.

d) Finkatze-proiektuaren (2B) memoria tekniko-ekonomikoa, web orrian eskura daitekeen ereduaren arabera. Inprimakia behar bezala bete behar da, eta proiektua garatzen duten erakundeetako bakoitzean ordezkaritza-ahalorde nahikoa duten pertsonek sinatu behar dute.

d) Memoria técnico-económica del Proyecto de Consolidación (2B), según modelo disponible en la web, debidamente cumplimentada y suscrita por personas con poder de representación suficiente de cada una de las entidades que desarrollan el proyecto.

e) 3. oinarrian definitutako proposamenetako edozein gauzatzeko, enpresak eta 2. oinarrian ezarritako pertsonek edo erakundeek sinatutako kontratuen kopia. Dokumentu horretan laguntza-eskaeraren xede den lanaren eduki guztiak agertu behar dira.

e) Copia de los contratos que hayan sido firmados entre la empresa y las personas o entidades establecidas en la base 2 para la realización de cualquiera de las propuestas definidas en la base 3. En este documento deberán estar especificados los distintos contenidos del trabajo por el que se solicita la ayuda.

f) Indarrean dauden ziurtapenak eta/edo planak, genero ikuspegi, ingurumen, euskararen sustapen eta enpresa erantzukizun sozialekoak, bai eta erakunde publiko eskudunek emandako aintzatespenak eta diplomak ere.

f) Las certificaciones y/o planes medioambientales, de perspectiva de género, de promoción del euskera y de Responsabilidad Social Empresarial en vigor, así como otro tipo de reconocimientos y diplomas emitidos por entidad pública competente al respecto.

g) Hartzekodunaren fitxa, behar bezala beteta, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak duen enpresaren banku-helbideraketa aldatu nahi bada.

g) Ficha de acreedor debidamente cumplimentada, para el supuesto en que deseen modificar la domiciliación bancaria, respecto de la información que obre en poder de la Diputación Foral de Bizkaia.

2. Jarduketa justifikatzeko eta espedientea ixteko aurkeztu behar den dokumentazioa proiektua amaitutakoan eta, edonola ere, 2021ko azaroaren 1a baino lehen aurkeztu behar da.

2. Documentación a presentar a la finalización del proyecto y en cualquier caso con anterioridad al 1 de noviembre de 2021, para la justificación de la actuación y cierre del expediente.

6. oinarrian aipatutako kasuetan proiektua gauzatzeko edo justifikatzeko epea luzatzea onartzen denean, proiektuaren amaierako justifikazioa luzapena ematen duen ebazpenean ezarritako epearen barruan

En los supuestos de concesión de ampliación del plazo de ejecución del proyecto o de ampliación de justificación a los que se refieren las base 6 la justificación final del mismo deberá ser presentada en el plazo establecido en la resolución por la que se

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

aurkeztu behar da.

Diru-laguntzaren justifikazioa gastu agiriekiko justifikazio-kontuaren sistemaren bidez egingo da; horretarako, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Finkatze-proiektua (2B) justifikatzeko memoria tekniko-ekonomikoa, web orrian eskura daitekeen ereduaren arabera. Inprimakia behar bezala bete behar da, eta proiektua garatzen duten erakundeetako bakoitzean ordezkaritza-ahalorde nahikoa duten pertsonek sinatu behar dute. Memoria horretan, proiektuari egotzitako diru sarreren eta gastuen egoera-orria eta jardueraren gastuen zerrenda sailkatua aurkeztuko dira, eta hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data identifikatuko dira. Era berean, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideen zehaztapena jasoko du, baita eskatutako finantzaketa propioarena ere.

b) Egindako gastuen fakturak.

c) Fakturen ordainketen frogagiriak

d) Eginiko proiektua justifikatzeko dokumentazio teknikoa.

e) Diru-laguntza emateko ebazpenean beren-beregi aurkezteko eskatu dena.

3. Dena dela, Ekonomia Sustatzeko Sailak enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta haren jarraipena egin ahal izateko; agiriak eskatzen diren unean zehaztutako epean eman beharko dira. Era berean, Ekonomia Sustatzeko Sailak bisitak egitea eskatu ahalko dio erakunde eskatzaileari, proiektua egiten ari den bitartean eta proiektua amaitu ondoren, behar bezalako jarraipena egin ahal izateko.

11 oinarria. *Diru-laguntza ordaintzea.*

Ekonomia Sustatzeko Sailak ordainduko dizkio diru-laguntzak, zuzenean, onuraduna den

concede la misma.

La justificación de la subvención se realizará mediante el sistema de cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto para lo cual deberá presentar:

a) Memoria técnico-económica de justificación del Proyecto de Consolidación (2B), según modelo disponible en la web, debidamente cumplimentada y suscrita por personas con poder de representación suficiente de cada una de las entidades que desarrollan el proyecto. En dicha memoria se presentará un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto y una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación del acreedor o la acreedora, importe, fecha de emisión y fecha de pago. Incluirá así mismo un detalle de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, en su caso, que hayan financiado la actividad subvencionada.

b) Facturas de los gastos ocasionados.

c) Justificantes de pago de las facturas.

d) Documentación técnica justificativa del proyecto realizado.

e) Aquella que expresamente se solicite su presentación en la resolución de concesión.

3. En todo caso, el Departamento de Promoción Económica podrá requerir a la entidad solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y seguimiento de la solicitud presentada; documentación que deberá aportar en el plazo que se le especifique en el momento en el que le sea requerida. De igual modo, el Departamento de Promoción Económica podrá requerir a la entidad solicitante visitas en el transcurso y a la finalización del proyecto, para su adecuado seguimiento.

Base 11. *Pago de la subvención.*

Las subvenciones se abonarán directamente a la entidad beneficiaria por parte del

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

entitateari.

Emango den kopuruaren % 100a laguntzaren emakida onetsitakoan ordainduko da.

Kasu guztietan, diru-laguntza aldez aurretik ordainduko da, erakunde onuradunei bermerik eskatu gabe.

12. oinarria. *Diru-laguntzaren doikuntza*.

Proiektuaren azken justifikazioa egiten denean, diru-laguntza jaso dezaketen gastuetik benetan egin direnen arabera doituko da diru-laguntza, eta hasieran emandako zenbatekoa baino txikiagoa izan ahal da. Kasu horretan, diru-laguntzaren azken doikuntza egingo da eta behar bezala justifikatutako gastuarekiko proportzionala izango da.

# II. TITULUA

## Diru-laguntzentzako xedapen komunak

13. oinarria. *Diru-laguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak*.

1. Honako hauek dira diru-laguntza jaso dezaketen gastuak: indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatu direnak, betiere epearen barruan egin badira, beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten badiete.

2. Eginiko gastua da justifikazioa egiteko ezarritako epea amaitu aurretik ordaindu egin dena.

3. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuen kostuak ez dira onartuko baldin eta merkatuan duten balioa baino handiagoak badira.

4. Edonola ere, honako gastu hauek ez dute diru-laguntzarik jasoko:

a) Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ),

Departamento de Promoción Económica .

Se abonará el 100 % de la cantidad otorgada en el momento de concesión de la ayuda.

En todos los casos se procederá al abono anticipado sin exigir garantías a las entidades beneficiarias.

Base 12. *Ajuste de la subvención*.

En el momento de la justificación final del proyecto la subvención se ajustará a los gastos subvencionables efectivamente producidos, pudiendo ser menor de lo otorgado inicialmente y en ese caso, realizando el ajuste final de la subvención proporcional al gasto realizado y debidamente justificado.

# TÍTULO II

## Disposiciones comunes a las subvenciones

Base 13. *Criterios generales de gastos subvencionables*.

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

2. Se considerará gasto realizado el que ha sido pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación establecido.

3. No se admitirán costes de adquisición de gastos subvencionables que sean superiores al valor del mercado.

4. En cualquier caso, no serán subvencionables:

a) El Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA),

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

berreskuratu ezin daitekeen kasuetan ere.

incluso en los casos en los que este no pueda ser recuperado.

b) Diru-laguntzaren xedea den jarduerarekin inolako inola ere identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdi bakoitzerako epearen barruan egiten ez direnak.

b) Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención y/o no se realicen en el plazo establecido en cada convocatoria.

c) Eskatzailearen eta hornitzailearen artean lotura dagoela erakusten duten gastuak. Ondorio horietarako, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikuluak eta Merkataritzako Kodearen 42-49 artikuluek ezarritako kasuetan joko da lotura dagoela.

c) Los gastos en los que exista vinculación entre solicitante y proveedor. Se entenderá que existe vinculación en los casos establecidos en el artículo 42.3 de la Norma Foral 11/2013 de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, y los artículos 42 a 49 del Código de Comercio.

5. Gastuak diruz laguntzeko modukotzat jotzeko, erakunde onuradunak kontabilitate-erregistroa izan beharko du, diru-laguntza jaso duen proiektuari dagozkion sarrerak eta gastuak bereiz identifikatu ahal izateko. Horretarako, aparteko kontabilitate-sistema bat erabili ahal izango du, edo, bestela, proiektuari lotutako transakzio guztietarako egokia den kontabilitateko kode bat esleitu 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 125.4. artikuluan ezarritakoarekin bat).

5. Para que los gastos sea considerados subvencionables la entidad beneficiaria deberá llevar un registro contable que permita la identificación separada de los ingresos y gastos correspondientes al proyecto subvencionado, bien mediante un sistema de contabilidad aparte bien asignando un código contable adecuado a todas las transacciones relacionadas con el proyecto, de acuerdo a lo establecido en el artículo 125.4 del Reglamento (UE) 1303/2013.

14. oinarria. *Diru-laguntzak metatzea.*

Base 14. *Acumulación de ayudas.*

Foru dekretu honetan jasotako laguntzek edo diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 352. zenbakikoan, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, arautegi hori ez betetzeak, erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke enpresa arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, edozein enpresari emandako *minimis* laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

Las ayudas o subvenciones contempladas en el este decreto foral están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) nº 1407/2013 de la Comisión de 18 de diciembre de 2013 relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis (publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea DOUE 352 el 24 de diciembre de 2013) y en consecuencia el incumplimiento de esa normativa, podría significar responsabilidad penal, civil y administrativa para la empresa infractora. Según lo establecido por la Unión Europea, la ayuda total de MINIMIS concedida a cualquier empresa no deberá exceder de 200.000 euros en un período de tres ejercicios fiscales.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

15. oinarria. *Diru-laguntzen bateragarritasuna*.

1. Foru dekretu honen itzalpean ematen diren laguntzak ez dira bateragarriak izango beste erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu beragatik ematen dituztenekin.

2. Nolanahi ere, diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek Ekonomia Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko diote beste diru-laguntzarik jaso duten, berdin diolarik noiz jaso duten. Horrek guztiak hala behar du, 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako. Horrela, beraz, beste diru-laguntzen edo laguntza ekonomikoen zenbatekoak zenbatetsi eta, proiektua finantzatzeko ehunekoa mantentze aldera, diru-laguntza esleitzeko ebazpena aldatu ahal izango da.

Base 15. *Compatibilidad de las subvenciones*.

1. Las ayudas otorgadas al amparo del este decreto foral serán incompatibles con cualesquiera otras provenientes de otros Organismos públicos o privados asignadas para el mismo objeto.

2. En cualquier caso, las entidades beneficiarias de las subvenciones tendrán la obligación de comunicar al Departamento de Promoción Económica la concesión de cualquier tipo de ayuda, independientemente de la fecha en que la misma haya sido concedida, a los efectos previstos en el artículo 18.3 y 4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro.

16. oinarria. *Diru-laguntzen argitaratzea*.

1. Diru-laguntzak ematen diren urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa bukatu aurretik, ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

2. FEDER Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren arautegiari jarraituz, foru dekretu honetako laguntzak onartzeak berekin dakar datuak zerrenda publiko batean sartuko direla onartzea: alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko FEDER 2014-2020 programa eragilearen eragiketen zerrendan.

Base 16. *Publicación de las subvenciones*.

1. Se publicará un extracto de la resolución en el "Boletín Oficial de Bizkaia" antes del fin del primer trimestre posterior al vencimiento del año natural de concesión.

2. De acuerdo con la normativa del Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER), la aceptación de las ayudas a que se refiere el presente decreto foral supone la aceptación de la inclusión en una lista pública de operaciones del Programa Operativo FEDER del País Vasco 2014-2020.

17. oinarria. *Laguntzaren publizitatea*.

1. Dekretu honen babesean emandako laguntzen onuradun direnek, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntzaren publizitatea egin beharko dute diruz lagundutako jarduketa ororen zabalkunde-ekintza guztietan, hala ezarrita baitago Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 17.3. artikuluan. Halaber adierazi beharko dute Eskualde Garapeneko Europako Funtsen (EGEF) kofinantzazioa izan dutela, 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren XII. eranskinaren 2.2 apartatuan

Base 17. *Publicidad de la ayuda*.

1. Las solicitudes que resulten beneficiadas por ayudas concedidas al amparo de este Decreto, en todas las acciones de difusión de las actuaciones subvencionadas deberán dar publicidad del apoyo recibido de la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo a lo indicado en el artículo 17.3 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones, así como de la cofinanciación por el FEDER, en aplicación del apartado 2.2 del Anexo XII del Reglamento (UE) 1303/2013.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

ezarritakoarekin bat.

2. Proiektuaren finantzazioaren izaera publikoari buruzko publizitate egokia –euskarri informatikoetan zein bestelakoetan– egiteko, esaldi hau sartu beharko da: ”Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau, 2020ko Innobideak-Kudeabide Programaren barruan eta FEDER funtsaren kofinantziazioa ere badauka / Este proyecto ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia dentro del Programa Innobideak-Kudeabide 2020 y cuenta con cofinanciación del FEDER”. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Europar Batasunaren ikur ofizialak ere sartu beharko dira. Beren beregi debekatuta dago beste edozein esaldi edo irudi erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiari erreferentzia egiteko.

2. La adecuada publicidad del carácter público de la financiación del proyecto, en soportes tanto informáticos como de cualquier otro tipo, deberá limitarse a la inclusión de la siguiente expresión: ”Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau, 2020ko Innobideak-Kudeabide Programaren barruan eta FEDER funtsaren kofinantziazioa ere badauka / Este proyecto ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia dentro del Programa Innobideak-Kudeabide 2020 y cuenta con cofinanciación del FEDER”. Incluirá también los emblemas oficiales de la Diputación Foral de Bizkaia y la Unión Europea. Queda expresamente prohibida la utilización de cualquier otra leyenda o imagen mediante la cual se haga referencia a la Diputación Foral de Bizkaia.

3. Erakunde onuradunek proiektuari buruzko informazioa erakusten duen kartela jarriko dute (gutxienez A3 tamainakoa), eta, jendeak ondo ikusteko lekuan, jasotako laguntzaren aipamena jasoko dute. Era berean, aktibo materialen (instalazioak, makinak, ekipoak...) finantzazioari dagokionez, aktibo bakoitzean kartel bat edo itsasgarri bat jarriko da, jasotako laguntzaren aipamenarekin.

3. Las entidades beneficiarias colocarán un cartel con información sobre el proyecto (de un tamaño mínimo A3), en el que mencionará la ayuda recibida, en un lugar bien visible para el público. Así mismo, en el caso de financiación de activos materiales (instalaciones, maquinaria, equipos…) se colocará en cada uno de los activos un cartel o adhesivo mencionando la ayuda recibida.

4. Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3. eta 13.4. artikuluetan ezarritakoarekin bat (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte edo entitateek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren barruan egindako agerpen publiko orotan. Halaber, pertsona edo erakunde onuradunek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte herritarrei beren jardueraren berri emateko egiten dituzten liburuxketan, karteletan edo bestelakoetan.

4. De acuerdo a lo establecido en el artículo 13.3 y 13.4 del Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales, las entidades beneficiarias de la ayuda deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada. Igualmente, en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por las personas o entidades beneficiarias para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales.

5. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikuluaren arabera, arau horren 8., 9. eta 10. artikuluetan jasotako gardentasun eta publizitatearen

5. De acuerdo al artículo 2 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, las obligaciones de transparencia y publicidad recogidas en los artículos 8, 9 y 10

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

inguruko betebeharrak erakunde pribatu hauei aplikatuko zaizkie: aurrekontu-ekitaldi batean zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo urteko diru-sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik jasotzen dutenei, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

de la citada norma les serán de aplicación a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros. Las solicitudes que resulten beneficiadas por ayudas concedidas al amparo de este decreto, deberán dar publicidad del apoyo recibido, de acuerdo a lo indicado en el art. 17.3 de la Norma Foral 5/2005.

# III. TITULUA

## Diru-laguntzak esleitzeko prozedura

18. oinarria. *Emateko prozedura.*

1. Dekretu honen diru-laguntzak emateko prozedura lehia askearen erregimenaren arabera egingo da.

2. Diru-laguntza eskabideak hurrengo oinarrietan azaldutako izapideen arabera kudeatuko dira, honako berezitasun hauekin:

a) Eskabideak iritsitako hurrenkeraren arabera izapidetuko dira, eta, instrukzio fasean, erakunde eskatzaileak onuradun izateko betekizunak zer mailatan betetzen dituen eta diruz lagun daitekeen egitatearen lehia eta diruz lagun daitezkeen gastuen zenbatekoa aztertu baino ez da egingo.

b) Eskabideak ebatziko dira eta funtsak eskaerak jasotzen diren hurrenkeran banatuko dira, betiere deialdiko baldintzak betetzen badituzte. Ondorioz, eskaera jasotzen den eguntzat hartuko da deialdiko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa dagokion erregistroan sartu den data, 2. eta 3. oinarrian ezarritakoarekin bat etorrita.

# TÍTULO III

## Procedimiento de concesión de las subvenciones

Base 18. *Procedimiento de concesión.*

1. El procedimiento de concesión de las subvenciones contempladas en este decreto foral será el de libre concurrencia.

2. Las solicitudes de subvención serán gestionadas de acuerdo a los trámites expuestos en las bases siguientes, con las siguientes particularidades:

a) Las solicitudes serán tramitadas por el orden de llegada y la fase de instrucción se limitará a analizar el nivel de cumplimiento de los requisitos de la entidad solicitante para poder ser beneficiaria, así como la concurrencia del hecho subvencionable y la cuantía de los gastos subvencionables.

b) Las solicitudes serán resueltas, distribuyéndose los fondos en el orden en que reciban las peticiones, siempre que reúnan los requisitos establecidos en la convocatoria. En consecuencia se considerará fecha de recepción de la petición la última fecha de entrada en el registro correspondiente de documentación que acredite que se reúnen los requisitos de la convocatoria, de acuerdo a lo establecido en las bases 2 y 3.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

19. oinarria. *Eskabideak nola aurkeztu.*

1. Eskabidea Internet bidez aurkeztu behar da, atal guztiak behar bezala beteta, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian (www.bizkaia.eus), Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualari dagokion atalean.

2. Horrela bada, eskabideak bide telematikoetatik aurkeztu behar direnez, enpresa interesdunek aldez aurretik sinadura elektronikoa izan beharko dute (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA…), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa. Azken hau eskatu ahal izango da Ekonomia Sustatzeko Sailean (Orueta Apezpikua kalea, 6., Bilbo). Alta prozeduraren gaineko informazioa eskuragarri dago Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualeko aipatu atalean

3. Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da erakundea Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakundeen erregistroan alta emanda egotea (106/2016 Foru Dekretua, ekainaren 14koa; BAO 116 zk., 2016.ko ekainaren 17koa). Egoera horretan ez badago, erakundeak bulego birtualean inskribatzeko eskaera bete beharko du, diru-laguntza eskabidea izapidetu baino lehen.

4. Nolanahi ere, instrukzioaz arduratzen den organoak elkarrekin zerikusia duten eskabideak multzokatu edo banakatu ditzake, eskabideok ondo aztertu eta ebaluatzeko eta diru-laguntzaren xedeko jarduerara ondoen egokitzen den egitate lagungarria zehazteko neurri egokia dela irizten badio.

5. Erakunde eskatzaile guztiek, diru-laguntzarako eskabidea aurkeztean, baimena ematen diote organo instrukzio-egileari, 2. oinarriak aipatzen dituen inguruabarren egiaztapena zuzenean lor ditzan; hori, Diru-laguntzen Erregelamenduari buruzko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren (aurrerantzean, Diru-laguntzen Erregelamendua) 17.1.artikuluan eta Datu

Base 19. *Presentación de las solicitudes.*

1. La solicitud, debidamente cumplimentada en todos sus términos, deberá presentarse por Internet, en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia (www.bizkaia.eus), en el apartado correspondiente a la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica.

2. De acuerdo con lo anterior, la presentación telemática de las solicitudes exigirá que, con carácter previo, las interesadas dispongan de firma electrónica (Izenpe, DNI electrónico, FEA…) o del certificado electrónico B@kQ, que podrá ser solicitado en las oficinas del Departamento de Promoción Económica sito en la calle Obispo Orueta, número 6, de Bilbao. La información sobre el procedimiento de alta está disponible en el citado apartado de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica.

3. Para la presentación de la solicitud será requisito que la entidad figure dada de alta en el registro de entidades del Departamento de Promoción Económica (Decreto Foral 109/2016, de 14 de junio; BOB nº 116, de 17 de junio de 2016). En caso de no encontrarse en esta situación, la entidad deberá cumplimentar la solicitud de inscripción en la oficina virtual como paso previo a la tramitación de la solicitud de la subvención.

4. En todo caso, el órgano instructor podrá agrupar o desglosar aquellas solicitudes relacionadas entre sí, en cuantas considere oportunas para su correcto análisis y evaluación, así como determinar el hecho subvencionable que mejor se adecue a la actividad objeto de subvención.

5. La presentación de la solicitud de subvención conllevará la autorización de todas las entidades solicitantes para que el órgano instructor pueda obtener de manera directa la acreditación de las circunstancias a que se refieren la base 2, lo que podrá realizarse a través de los correspondientes certificados telemáticos, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.1 del Decreto Foral 34/2010,

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean 3/2018 Lege Organikoan) xedatutakoarekin bat etorriz, ziurtagiri telematiko egokien bidez egin daiteke.

de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones (en adelante Reglamento de Subvenciones) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Personal y Garantía de los Derechos Digitales (en adelante Ley Orgánica 3/2018).

6. Eskabideekin batera arlo eta atal bakoitzean ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira; arestian aipatu atari birtualean agiriak eransteko dagoen sistema erabiliko da.

6. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación que se fija en cada una de las áreas y secciones; utilizándose el sistema de anexado de documentación existente en el portal virtual anteriormente citado.

20. oinarria. *Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak.*

Base 20. *Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión.*

1. Diru-laguntzetarako eskaerak Berrikuntza Zerbitzuak izapidetuko ditu, eta, eskaerok ebazteko, Ekonomia Sustatzeko Saileko arduradunak esanbidezko ebazpena emango du, Enpresa Lehiakortasuna Sustatzeko ???? eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiak hala proposaturik.

1. Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio de Innovación, órgano instructor, y serán resueltas mediante resolución expresa de la persona titular del Departamento de Promoción Económica a propuesta de la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial.

2. Emakida prozedura antolatzeko, bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak osatzerako orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkaritza ordekatuta dagoela; horrek esan nahi du bi sexuek ordezkariren bat eduki beharko dutela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen (aurrerantzean 4/2005 Legea) 20. artikuluan eta 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

2. En la composición de los órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión se tendrá en cuenta la necesidad de una representación equilibrada de ambos sexos, entendiendo que ello supone que al menos ambos estén representados, tal y como está previsto en el artículo 20 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Ley 4/2005) y el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018.

21. oinarria. *Txostenaren instrukzioa.*

Base 21. *Instrucción del expediente.*

1. Eskabideen espedienteak honelaxe izapidetuko dira:

1. La instrucción de los expedientes de solicitudes se realizará del siguiente modo:

a) Instrukzioaz arduratzen den organoak ezarri diren eta pertsona edo erakunde onuradun gertatzeko ezinbestekoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko du.

a) El órgano instructor comprobará el cumplimiento de los requisitos establecidos para adquirir la condición de persona o entidad beneficiaria.

b) Eskabideak behar bezala beterik ez badaude

b) Recibidas las solicitudes, si éstas no vinieran

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

edo deialdietan aipaturiko agiriak erantsita ez badituzte, eskabidea aurkeztu duen enpresari agindeia egingo zaio instrukzioaz arduratzen den organoak jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasiko den hamar (10) asteguneko epean akatsa konpon dezan edo behar diren agiriak aurkez ditzan; eta ohartaraziko zaio, hori egiten ez badu, bere eskaeran atzera egindakotzat joko dela berariaz emango den ebazpenaren bitartez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean 39/2015 Legea) 21. eta 68. artikuluetan xedatutakoaren arabera

cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación que las distintas convocatorias establezcan, el órgano instructor requerirá a la entidad solicitante para que, en el plazo de diez (10) días hábiles, contados a partir del día siguiente en que tenga lugar la notificación, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de la correspondiente solicitud mediante resolución dictada al efecto, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 21 y 68 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante Ley 39/2015).

2. Nolanahi ere, organo instruktoreak aurkeztu diren eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat hartzen dituen agiri edota argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskabidea aurkeztu duten erakunde eskatzaileei.

2. En todo caso, el órgano instructor podrá requerir a las entidades solicitantes, cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de la solicitud presentada.

22. oinarria. *Eskabideen ebaluazioa.*

Organo instrukzio-egileak eskabideak ebaluatuko ditu 2, 3, 9. eta 10. oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Base 22. *Evaluación de solicitudes.*

Las solicitudes serán evaluadas por el órgano instructor que comprobará el cumplimiento de los requisitos indicados en las bases 2, 3, 9 y 10.

23. oinarria. *Ebazpen proposamena.*

Eskabideak ebaluatu ondoren organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena igorriko dio Ekintzailetza eta Enpresen Lehiakortasuna bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiari. Proposamen horrek ez die inolako eskubiderik emango proposamen horretan bertan onuradun ageri diren pertsonei edo erakundeei.

Base 23. *Propuesta de resolución.*

Tras la evaluación de las solicitudes el órgano instructor elevará a la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial la propuesta de resolución, la cual no creará derecho alguno a favor de las personas o entidades que figuren en dicha propuesta como beneficiarias.

24. oinarria. *Aurrekontuaren muga.*

Aurreko oinarrian aipatutarekoarekin bat etorriz, aurkeztutako eskabide guztietatik aurrekontu-partidan izendatutako aurrekontuko baliabideek ahalbidetzen

Base 24. *Límite presupuestario.*

De las solicitudes presentadas únicamente podrán ser seleccionadas tantas como permitan las disponibilidades presupuestarias consignadas en la partida establecida al efecto.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

dituzten beste hautatuko dira.

25. oinarria. *Ebazteko epea*.

1. Eskabidea Ekonomia Sustatzeko Saileko erregistroan sartu eta sei (6) hilabete igarota amaituko da foru dekretu honen babesean eginiko eskabidean ebaztekoepea.

2. Aurkeztutako eskabide guztien ebazpen espresua eman behar du organo eskudunak. Edonola ere, ebazpenerako eta jakinarazpenerako epea amaitu bada eta aipatutako organoak ebazpena eman ez badu, eskabidea ezetsitzat joko da administrazio-isiltasunaren, horrela xedatzen baita 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

26. oinarria. *Ebazpena*.

1. Enpresa Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiak Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen proposamena, eta hark ebatziko du dagokion foru aginduaren bidez.

2. Diru-laguntza ematen duen ebazpenean baldintza bereziak ezarri ahalko dira, foru dekretu honetan edo dagokion deialdian xedatutakoa proiektuen izaera bereziari edo bestelako inguruabarrei egokitze aldera beharrezkoa irizten bazaio, arrazoituz eta zertan oinarritzen den adieraziz..

3. Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, 39/2015 Legearen 40. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betez.

4. Ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, onuradun gertatu den pertsonak edo erakundeak hamar (10) laneguneko epea du –jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita – baiezkoa emateko. Epe hori amaitu eta interesdunek ez badute berariaz

Base 25. *Plazo de resolución*.

1. El plazo máximo para la resolución de las solicitudes formuladas al amparo del este decreto foral finalizará transcurridos seis (6) meses desde que la solicitud haya tenido entrada en el Registro del Departamento de Promoción Económica.

2. Sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa en todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación, ésta no se hubiese dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, conforme a lo dispuesto en el artículo 25 de la Ley 39/2015.

Base 26. *Resolución*.

1. La Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial elevará la propuesta de resolución a la persona titular del Departamento de Promoción Económica, quien resolverá mediante la oportuna orden foral.

2. En la resolución de otorgamiento, podrán establecerse condiciones particulares cuando, por la naturaleza específica de los proyectos u otras circunstancias concurrentes, se estime conveniente, motivando e indicando las razones en que se basa, con el fin de aplicar y adecuar a cada caso lo dispuesto en el este decreto foral o en la normativa contemplada en la convocatoria correspondiente.

3 La resolución se notificará a las entidades interesadas, de acuerdo a lo previsto en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015.

4. Notificada la resolución, la persona o entidad beneficiaria dispondrá de un plazo para su aceptación, de diez (10) días hábiles contados a partir del día siguiente al que tenga lugar la notificación. Transcurrido dicho plazo sin haberse producido manifestación expresa,

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

ezer adierazi, ebazpena onartu dela ulertuko da.

se entenderá tácitamente aceptada.

27. oinarria. *Errekurtsoak.*

1. Ebazpenak administraziobidea agortzen du. Beraren aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, Ekonomia Sustatzeko Saileko titularrari ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorriz..

2. Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoen dagokion jurisdikzioan jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa araupetu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz. Ezin dira bi errekurtso horiek aldi berean jarri.

Base 27. *Recursos.*

1. La resolución agota la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la persona titular del Departamento de Promoción Económica, en el plazo de un (1) mes, a contar desde el día siguiente a aquel en que se reciba la notificación de la misma, en los términos que establece la Ley 39/2015.

2. Asimismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante la jurisdicción contencioso administrativa que corresponda, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la notificación de la misma, en los términos contemplados por la Ley 29/1998 de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa. No será posible simultanear ambos recursos.

28. oinarria. *Diru-laguntzari uko egitea.*

1. Onuradun gertatu diren pertsonetako edo erakundeetakoren batek diru-laguntzari uko egingo balio, diru-laguntza eskaintzen duen organoak zerrendan, 18. oinarrian ezarritako ordenari jarraiki, hurrengo dauden pertsona edo erakunde eskatzaileei emango lieke, baldin eta eskabide horiei aurre egiteko kreditu nahikorik balego.

Diru-laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar (10) eguneko epean diru-laguntza proposamena onets dezaten. Epe hori, gainera, ezin izango da luzatu. Diru-laguntza eskatu duen pertsona edo erakundeek proposamena onartzen dutenean, administrazio-organoak laguntza emateko egintza ezarri eta jakinarazpenak egingo ditu.

3. Uko egitea aurkezteko gehieneko epea hamar (10) egun baliodun izango da, erakunde interesdunari diru-laguntza proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igaro

Base 28. *Renuncia de la subvención.*

1. En caso de renuncia a la subvención de alguna de las personas o entidades beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión de la subvención a las personas o entidades solicitantes siguientes en el orden establecido en la base 18, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

2. El órgano concedente comunicará esta opción a las interesadas, a fin de que acepten la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez (10) días. Una vez aceptada la propuesta por las personas o entidades solicitantes, el órgano administrativo dictará el acto de concesión y procederá a su notificación.

3. El plazo máximo para poder presentar una renuncia será de diez (10) días hábiles desde la notificación de la propuesta de subvención a la entidad interesada. Transcurrido ese plazo,

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

ondoren, uko egitea diru-laguntza emateko arrazoi izan diren baldintzak ez-betetzea dela joko da.

29. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa.*

1. Ekonomia Sustatzeko Sailak interesdunei jakinarazpenak egitean, bide elektronikoak erabili beharko ditu, 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoarekin bat.

2. Bitarteko elektronikoen bidez egiten diren jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.ebizkaia.eus) agertuz egin beharko dira, Administrazio Elektronikoari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren arabera, eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren ekainaren 6ko 4841/2016 Foru Aginduaren arabera (foru agindu hori jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa da).

## IV. TITULUA

## Diru-laguntzen kudeaketa eta egiaztapena

30. oinarria. *Jarraipena.*

1. Laguntzen erakunde onuradunek agiri bidez justifikatu beharko dute gauzatu dituztela diruz lagundutako jarduerak eta betetzen dituztela laguntzak lortzeko foru dekretu honetan, dagokion deialdian eta emakida-ebazpenean ezartzen diren baldintzak. Horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailak, eta, hala dagokionean, erakunde laguntzaileak eskatuta, edozein momentutan justifikatu beharko dituzte alderdi horiek.

cualquier renuncia tendrá la consideración de incumplimiento de las condiciones por las que se ha otorgado la subvención.

Base 29. *Notificación electrónica.*

1. Las notificaciones realizadas por parte del Departamento de Promoción Económica a las entidades interesadas se realizarán por medios electrónicos, de acuerdo a lo previsto en el artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015.

2. Las notificaciones por medios electrónicos se practicarán mediante comparecencia en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (https://www.ebizkaia.eus), de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 62/2015, de 5 de mayo, de Administración Electrónica, así como en la Orden Foral de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales 4841/2016, de 6 de junio, sobre la práctica de las notificaciones y comunicaciones por medio del sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

## TÍTULO IV

## Gestión y justificación de las subvenciones

Base 30. *Seguimiento.*

1. Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones deberán justificar documentalmente la realización de las actividades apoyadas, así como el cumplimiento de las condiciones a que se sujeta su obtención, en la forma prevista en el presente decreto foral, en su caso, en la correspondiente convocatoria y en la orden foral de su concesión, así como en cualquier momento a requerimiento del Departamento de Promoción Económica y en su caso, de la entidad colaboradora correspondiente.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

2. Hala, 4/2005 Legean eta 4/2018 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, diru-laguntza jasoko duten pertsona edo erakundeek lege horietan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte.

3. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, diru-laguntza itzultzeko eskatuko da, eta 5/2005 Foru Arauan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira. Kasu horietan, onuradun gertatu den pertsonak edo erakundeak jaso duen eta frogatu ez duen diru-kopurua bueltatu beharko du, baita dagokion berandutze-interesa ere.

4. Diru-laguntza ematen duen organoak emate-erabakia ofizioz aldatu ahal izango du funtsak aplikatu aurretik eta interesdunak esan beharrekoa entzun ondoren. Erabakia ofizioz aldatu ahal izango da diru-laguntza emateko betekizunetako bat aldatu egin bada eta, ondorioz, xedetzat hartu izan den interes publikoa bete ezin bada edo betetzeko zailtasunak izan baditu eta, bide batez, onuradun gertatu den pertsonari edo erakundeari kalte ekonomikoak eragin ez bazaizkio.

5. Organo instrukzio-egileak entzunaldien egutegia ezar dezake egitaraura aurkeztu diren proiektuen organo instrukzio-egilearen aurrean nahi izanez gero azalpenak aurkezteko.

6. Onuradun gertatu diren pertsonek edo erakundeek, halaber, laguntza ematen duen erakundeari diru-laguntzak emateko ebazpena aldatzeko eska diezaiokete diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu aurretik, betiere aipatu berri dugun aldaketaren bidez aldez aurretik ezarritako epeak luzatu nahi badira, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu nahi bada edo jarduerearen barne dauden egintzak aldatu nahi badira. Eskaera horiek baimena jasoko dute aurretik ikusi ez diren baldintzak gertatzen badira, betiere diru-laguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak urratzen ez badira.

7. Epeen luzapena 39/2015 Legearen 32. artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da. Beraz, epeak luzatzeko eskaera eta erabakia

2. En particular, las personas o entidades beneficiarias de subvención, de conformidad con lo previsto en la Ley 4/2005 y Norma Foral 4/2018 deberán respetar los principios generales previstos en las mismas.

3. La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido llevará consigo la exigencia de reintegro y demás responsabilidades establecidas en la Norma Foral 5/2005. En estos supuestos la persona o entidad beneficiaria deberá reintegrar, en su caso, las cantidades recibidas y no justificadas, junto con el interés de demora aplicable.

4. El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando, habiéndose advertido una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, éstas impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se causen perjuicios económicos a la persona o entidad beneficiaria.

5. El órgano instructor podrá establecer un calendario de audiencias para la exposición potestativa ante el mismo de los proyectos que concurren al Programa.

6. Las personas o entidades beneficiarias, igualmente, podrán solicitar al órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se perjudiquen derechos de terceras personas.

7. La ampliación de plazos se atendrá a lo establecido en artículo 32 de la Ley 39/2015, según la cual tanto la petición como la decisión

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

dagokien epea bukatu baino lehen egin beharko dira eta luzapena ezingo da hasieran ezarritako epearen erdia baino handiagoa izan. Era berean, epeen luzapena emateko edo ukatzeko ebazpenak ezingo zaie helegitea jarri, beti ere prozedura amaitzen duen ebazpenari jar dakiokeena ez bada.

sobre la ampliación deberán producirse antes del vencimiento del plazo de que se trate y la eventual ampliación no podrá exceder la mitad del plazo inicialmente establecido. Así mismo, los acuerdos sobre ampliación de plazos o sobre su denegación no serán susceptibles de recurso, sin perjuicio del procedente contra la resolución que ponga fin al procedimiento.

8. Halaber, Ekonomia Sustatzeko Sailak eskatu ahal izango dizkio Planaren emaitzak egoki ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak entitate onuradunari lagundutako proiektuaren amaieratik eta hurrengo hiru (3) urteetan.

8. Igualmente, el Departamento de Promoción Económica podrá recabar a la entidad beneficiaria la documentación y/o información complementaria que estime necesaria para la adecuada evaluación de los resultados correpondientes al Plan durante los tres (3) años posteriores a la finalización del proyecto apoyado.

31. oinarria. *Justifikatzeko modua.*

1. Diru-laguntzak arlo bakoitzean 10. oinarrian ezarritako agiriak aurkeztuz justifikatu beharko dira.

2. Justifikazioa Internet bidez aurkeztu behar da, atal guztiak behar bezala beteta. Horretarako, galdetegi bat bete behar da, Bizkaiko Foru Aldundiko web orrian (www.bizkaia.eus), Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualari dagokion atalean.

3. Justifikazioa egiteko epea igarota, ez bada justifikaziorik aurkeztu organo instrukzio-egilearen aurrean, organoak erakunde onuradunari eskatuko dio hamabost (15) egun balioduneko epean aurkez dezala, jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatuta. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, diru-laguntza itzultzeko eskatuko da, eta 5/2005 Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira. Izan ere, foru arau horretan arautzen da Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra.

Base 31. *Forma de justificación.*

1. Las subvenciones deberán justificarse mediante la presentación de la documentación establecida en la base 10.

2. Esta justificación, debidamente cumplimentada en todos sus términos, deberá presentarse por Internet, mediante el formulario que figura en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia (www.bizkaia.eus), en el apartado correspondiente a la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica.

3. Transcurrido el plazo establecido de justificación sin haberse presentado la misma ante el órgano instructor, éste requerirá a la entidad beneficiaria para que en un plazo improrrogable de quince (15) días hábiles a contar a partir del siguiente a la notificación sea presentada. La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido llevará consigo la exigencia de reintegro y demás responsabilidades establecidas en los artículos 37 y siguientes de la Norma Foral 5/2005.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

32. oinarria. *Baldintzak aldatzea.*

1. Pertsona edo erakunde onuradunak jakinarazi beharko du diru-laguntza ematean aintzat hartu ziren edozein inguruabar objektibo zein subjektiboren gaineko gertatu diren aldaketa guztiak.

2. Justifikazioa egitean pertsona edo erakunde onuradunak azaltzen badu diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzetan aldaketaren bat gertatu dela eta horrek ebazpena aldatzea ekar dezakeela, 30. oinarriko 6. atalean araututakoarekin bat etorriz, hura onetsi aurretik egin beharreko administrazio-baimenaren izapidea bete gabe, diru-laguntzak ematen dituen organoak aurkeztu den justifikazioa onartuko du; horrek, ordea, ez du pertsona edo erakunde onuraduna salbuetsiko 5/2005 Foru Arauaren arabera dagozkion zehapenetatik.

Base 32. *Alteración de condiciones.*

1. La persona o entidad beneficiaria tendrá la obligación de comunicar toda modificación que, en su caso, pudiera producirse en relación con cualquier circunstancia, tanto objetiva como subjetiva, que hubiera sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

2. Cuando la persona o entidad beneficiaria ponga de manifiesto, con ocasión de la justificación, que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, de acuerdo con lo regulado en la base 30 apartado 6, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente aceptará la justificación presentada, sin que ello exima a la persona o entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005.

# V. TITULUA

## Diru-laguntzak itzultzea eta arau hauste administratiboak

33. oinarria. *Diru-laguntza erakunde onuradunak berak itzultzea.*

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu, diru-laguntzen Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak itzulketa benetan egin duen unea arte.

3. Onuradunak berak eskatuta diru-laguntza itzultzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren araberako ordainketa-gutuna erabili behar da.

# TÍTULO V

## Reintegro de subvenciones e infracciones administrativas

Base 33. *Devolución a iniciativa de la entidad beneficiaria de la subvención.*

1. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

2. Cuando se produzca la devolución voluntaria la Administración calculará los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral de Subvenciones y hasta el momento en el que se produjo la devolución definitiva por parte de la beneficiaria.

3. La devolución de la subvención a instancia de la propia beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

34. oinarria. *Ez betetzeak.*

Foru dekretu honetan nahiz aplika daitezkeen bestelako arauetan ezarri diren baldintzak zein, kasuan kasukoa, ebazpenean ezartzen direnak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira; baita, kasuan kasukoa, kopuru horien interesak ere. Halaxe adierazten baita 5/2005 Foru Arauaren II. eta IV. tituluetan, dagozkion legezko ekintzak eta zehapenak gorabehera. Aipatutako zenbatekoak, diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

Base 34. *Incumplimientos.*

El incumplimiento de los requisitos establecidos en el presente decreto foral y demás normas aplicables, así como las condiciones que, en su caso se establezcan en la resolución, dará lugar a la obligación de reintegrar las cantidades percibidas así como los intereses correspondientes, en los casos que proceda, conforme a lo dispuesto en los títulos II y IV de la Norma Foral 5/2005, sin perjuicio de las acciones legales y sanciones que correspondan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

35. oinarria. *Ez betetzeak mailakatzeko irizpideak.*

1. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu baten gaineko ehuneko bat aplikatuta lortzen denez, behin betiko kostu osoa hasierako aurrekontua baino txikiagoa bada, honako hau itzuli behar da: hasierako aurrekontuaren gaineko ehuneko hori aplikatuta lortutako kopuruari behin betiko kostua kentzearen ondorioz finantzaketa publikoan sortutako soberakina.

2. Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zalantza barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) diru-laguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du edo, hala badagokio, diru-laguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

3. Administrazioak eginiko egiaztapen edo finantza-kontrol baten ondorioz ikusten bada eginiko gastuetako batzuk edo guztiak ordaindu gabe daudela eta hartzekodunek eskatzeko eskubidea dutela, itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta. Kasu horretan, diru-laguntza jaso dezaketen

Base 35. *Criterios de graduación de incumplimientos.*

1. Dado que la subvención concedida se obtiene de la aplicación de un porcentaje sobre el presupuesto presentado por la persona solicitante, cuando el coste total definitivo sea inferior al presupuesto inicial, será objeto de reintegro el eventual exceso de financiación pública que se produzca por diferencia entre los importes obtenidos por aplicación del citado porcentaje sobre el presupuesto inicial y el coste total definitivo.

2. El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación de la persona beneficiaria inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso, al reintegro también parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.

3. Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios de la Administración se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

egotzitako gastu guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren araberakoa izango da diru-laguntzaren itzulketa.

36. oinarria. *Zehapen-prozedura.*

1. 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarri beharko da.

2. 39/2015 Legean ezarritakoari jarraituko zaio, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoari ere, aurrekoari aurka egiten ez dionean

37. oinarria. *Deslokalizazioa.*

1. Enpresa eta erakunde onuradunek enpresako deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen dute; deslokalizaziotzat Enpresako deslokalizazio kasuetan foru sektore publikoko laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauan xedatutakoa jotzen da; foru araua Dekretu honek araututako diru-laguntzentzat guztiz aplikagarria izango da.

2. Konpromisoa ez betetzea Bizkaiko Foru Aldundiaren akordioaren bidez ebatziko da, eta emandako diru-laguntza itzuli behar izateko zioa izango da, aipatu foru arauan xedatutako prozedura aplikatuz.

## Xedapen gehigarriak.

Xedapen gehigarri bakarra. *Administrazio-prozedurak izapidetzen jarraitzea*

Dekretu honen babeseko espedienteen administrazio-prozedurak izapidetzen jarraituko da, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria betetzeko —haren bidez, alarma-

principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos no pagados respecto al total de gastos subvencionables imputados.

Base 36. *Procedimiento sancionador.*

1. Resultará de aplicación lo previsto en el título IV de la Norma Foral 5/2005,

2. Será de aplicación lo dispuesto en la Ley 39/2015 así como lo preceptuado en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo que no se oponga a la primera.

Base 37. *Deslocalización.*

1. Las empresas y entidades que resulten beneficiarias, asumen el compromiso de no incurrir en deslocalización empresarial, entendiendo por tal lo prevenido en la Norma Foral 7/2007 de 27 de marzo, de Recuperación de ayudas del Sector Público Foral en el supuesto de Deslocalizaciones Empresariales, la cual será de plena aplicabilidad a las subvenciones reguladas por el presente decreto foral.

2. El incumplimiento de este compromiso será declarado mediante acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia y constituirá causa de reintegro de la subvención concedida, aplicándose el procedimiento previsto en la citada norma foral.

## Disposiciones adicionales.

Disposición adicional única. *Continuación de los procedimientos administrativos*

Se dará continuación de los procedimientos administrativos de los expedientes de subvención al amparo de este decreto en atención a la Disposición Adicional Tercera del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

egoera deklaratzen da COVID-19ak sortutako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko—, kontuan hartuta ezinbestekoa dela interes orokorra babesteko.

el que se declara el estado de emergencia sanitaria para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, habida cuenta que es indispensable para la protección del interés general.

## Azken xedapenak

## Disposiciones finales

Amaierako lehen xedapena. *Ezarri beharreko arautegi orokorra*.

Disposición final primera. *Normativa general de aplicación*.

1. Foru dekretu honetan aipatutako diru-laguntzei dagokienez, honako hauek aginduko dute: foru dekretu honetan bertan xedaturikoak, laguntzak emateko foru agindietan ezartzen diren gainerako baldintzak, 5/2005 Foru Arauaren xedapenak, Diru-laguntzen Erregelamendua, eta Estatuko edo Europako Erkidegoko gainerako arau aplikagarriak.

1. Las ayudas a que se refiere el presente Decreto foral se regirán por lo dispuesto en el mismo, por las condiciones que se establezcan en las órdenes forales de resolución, así como por las disposiciones de la Norma Foral 5/2005, Reglamento de Subvenciones, y por la demás normativa estatal o comunitaria que resulte de aplicación.

2. Era berean, 39/2015 Legea erabiliko da gehigarri gisa.

2. Asimismo será de aplicación supletoria la Ley 39/2015.

3. Interesdunak ematen dituen datuak foru dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoan. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko (“ahaztua izateko eskubidea”), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak

3. De acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y en la Ley Orgánica 3/2018 los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del presente decreto foral. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión (“derecho al olvido”), limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan erreboka dezake lehen adierazitako onarpena. Halaber izango du eskubidea erreklamazioa aurkezteko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean.

le afecte significativamente de modo similar. De igual modo podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos.

Amaierako bigarren xedapena. *Arauen garapena.*

Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuak ahalmena izango du Dekretu hau garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko, bai eta, aurrekontu-zuzkidura amaitu ezean, bigarren deialdia egiteko ere.

Disposición final segunda. *Desarrollo normativo.*

Se faculta a la persona titular del Departamento de Promoción Económica a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo del este decreto foral, así como a la posibilidad de apertura de nuevas convocatorias en el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Amaierako hirugarren xedapena. *Aurrekontuko zuzkidura.*

1. Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, guztira 320.000 euro, jarraian zerrendatuko den aurrekontu partidan, aurrekontu proiektu eta urtekotik ordainduko dira:

| Proiektuaren zk.: 2016/0055 | |
|---|---|
| 08.02/44300/426.107 | |
| Ekitaldia | Zenbatekoa (€) |
| 2020 | 320.000 |
| GUZTIRA | 320.000 |

2. Horrez gainera, eskabide guztiak ebatzi ondoren aurrekontuaren gehieneko mugara heltzen ez bada, sobera geratutako zenbatekoa gastatzeko baimena ezeztatu egingo da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango foru dekretu hau aldatzea.

3. Diru-laguntzen erregelamenduaren 43. artikuluaren babesean, aurrekontuko zuzkiduren guztizko zenbatekoa areagotu ahal izango da, gehienez ere 100.000,00 euro gehituz, baldin eta eskuragarri dauden kredituak areagotu badira kreditua handitzea onartu delako edo kreditua sortu edo gehitu

Disposición final tercera. *Dotación presupuestar*

1. Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse en la presente convocatoria, por un importe total de 320.000 euros, se efectuarán con cargo a la partida presupuestaria, proyecto presupuestario y anualidad que se relaciona a continuación:

| Nº de Proyecto:2016/0055 | |
|---|---|
| 08.02/44300/426.107 | |
| Ejercicio | Importe (€) |
| 2020 | 320.000 |
| TOTAL | 320.000 |

2. Asimismo, si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante sin que sea obligatorio modificar el presente decreto foral.

3. Al amparo de lo establecido en el artículo 43 Reglamento de Subvenciones, la cuantía total de las diferentes dotaciones presupuestarias podrá ser ampliada en un importe adicional máximo de 100.000,00 euros, bien cuando exista un aumento de los créditos disponibles derivado de la aprobación de ampliaciones de

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

delako edo baldin eta kopuru osagarri bat badago aurreko deialdietan aurkeztutako eskaeren zenbatekoa aurrez ikusitakoa baino txikiagoa izan delako; kasu horietan, kreditu osagarri hori soilik izango da eraginkorra baldin eta kreditu horren erabilgarritasuna adierazita badago. Adierazpen hori diru-laguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Organo eskudunak baimenduko du kopuru handitze hori.

crédito, generaciones o incorporaciones de crédito, bien cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe inferior al previsto para las mismas; quedando condicionada la efectividad de la cuantía adicional a la declaración de disponibilidad del crédito, que deberá efectuarse en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención. Dicha ampliación será autorizada por el órgano competente para ello.

Amaierako laugarren xedapena**.** *Indarrean jartzea*.

Disposición final cuarta. *Entrada en vigor*.

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

El este decreto foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Bilbon emana.

Dado en Bilbao.

Bizkaiko Ahaldun Nagusia
Diputado General de Bizkaia

UNAI REMENTERIA MAIZ

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua
Diputada Foral de Promoción Económica.

AINARA BASURKO URKIRI

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.

# I. ERANSKINA
# Ekonomia jarduera zerrenda

3.oinarrian adierazitakoaren arabera, hurrengoan zerrendatzen dira EJSN -2009ko (apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretua, apirilaren 28ko 102. zenbakiko BOEn argitaratua) onargarriak diren epigrafeak:

B atala: Erauzketako industriak

C atala: Manufaktura-industria

D atala: Indar elektriko, gas, lurrun eta aire girotuko hornidura

E atala: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa

F atala: Eraikuntza (talde hau izan ezik):

- 41.1. taldea. Higiezinen sustapena

G atala: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa (multzo hau izan ezik):

- 47. multzoa. Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik.

H atala: Garraioa eta biltegiratzea

I atala: Ostalaritza (talde hau izan ezik):

- 56.3. taldea. Edaritegiak

J atala: Informazioa eta komunikazioak

M atala: Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak

N atala: Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak (multzo hau izan ezik):

- 80. multzoa. Segurtasun eta ikerketa jarduerak

P atala: Hezkuntza (multzo hau baino ez):

- 85.6. multzoa. Hezkuntzako jarduera

# ANEXO I
# Relación de actividades económicas

En relación a lo indicado en la base 3, a continuación se relacionan los epígrafes de la CNAE - 2009 (RD. 475/2007, de 13 de abril. Publicado en el «Boletín Oficial del Estado» número 102, de 28 de abril) admisibles:

Sección B: Industrias extractivas

Sección C: Industria manufacturera

Sección D: Suministro de energía eléctrica, gas, vapor y aire acondicionado

Sección E: Suministro de agua, actividades de saneamiento, gestión de residuos y descontaminación

Sección F: Construcción (excepto el grupo señalado):

- Grupo 41.1. Promoción inmobiliaria

Sección G: Comercio al por mayor y al por menor; reparación de vehículos de motor y motocicletas (excepto la división señalada):

- División 47. Comercio al por menor, excepto de vehículos de motor y motocicletas

Sección H: Transporte y almacenamiento

Sección I: Hosteleria (excepto el grupo señalado):

- Grupo 56.3.: establecimientos de bebidas

Sección J: Información y comunicaciones

Sección M: Actividades profesionales, científicas y técnicas

Sección N: Actividades administrativas y servicios auxiliares (excepto la división señalada):

- División 80. Actividades de seguridad e investigación

Sección P: Educación (sólo la división señalada):

- División 85.6. Actividades auxiliares a la

lagungarriak

Q atala: Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (multzo hauek baino ez):

- 87. multzoa. Egoitzetako laguntza
- 88. multzoa. Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak

R atala: Arte, aisialdi eta denbora-pasako jarduerak (multzo eta talde hauek baino ez):

- 90. multzoa: Sormen, arte eta ikuskizunen jarduerak
- 91. multzoa: Liburutegi, artxibategi eta museoetako jarduerak eta beste kultura jarduera batzuk
- 93.2 taldea: Aisialdi eta entretenimendu jarduerak

S atala: Bestelako jarduerak (multzo hau baino ez):

- 95. multzoa. Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxeko gauzen konponketa.

Salbuespenez, interes nabarmena duten proiektuak direnean, aurreko epigrafeetan agertzen direnez bestelako jarduera nagusia duten enpresak ere onuradun izan ahalko dira, Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren ebazpen arrazoituaren bitartez.

educación

Sección Q: Actividades sanitarias y de servicios sociales (sólo las divisiones señaladas):

- División 87. Asistencia en establecimientos residenciales
- División 88. Actividades de servicios sociales sin alojamiento

Sección R: Actividades artisticas, recreativas y de entretenimiento (sólo las divisiones y grupo señaladas):

- División 90: Actividades de creación, artísticas y espectáculos
- División 91: Actividades de bibliotecas, archivos, museos y otras actividades culturales
- Grupo 93.2: Actividades recreativas y de entretenimiento

Sección S: Otras actividades (sólo la división señalada):

- División 95. Reparación de ordenadores, efectos personales y artículos de uso doméstico.

Excepcionalmente, en el caso de proyectos de notable interés, podrán considerarse como beneficiarias empresas cuya actividad principal no se encuadre en los epígrafes anteriores, mediante resolución motivada de la persona titular del Departamento de Promoción Económica.

6-11-00-2020-005

Elektronikoki sinatutako dokumentua. XRIE-5G70-UVWI-JAL7 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) XRIE-5G70-UVWI-JAL7 en www.ebizkaia.eus.